

Emakumeen sustapen zentroa

Ermuko emakumeen sustapen zentroak lau hamarkada baino gehiago daramatza lanean. Irabazi asmorik gabeko fundazio bat da eta BBK-ren laguntzaz egiten du aurrera. Emakumeentzat topaleku bat da eta euren gaitasunak garatzeko abia.



- Zein urtetan sortu zen?

Emakumeen sustapen zentroa 1970. urtea baino lehenago sortu zen eta berrogei urte baino gehiago daramatzagu martxan.

- Zenbat kide zarete?

Guztira 30 bat emakume izango gara, baina kopurua aldakorra izaten da, urtean zehar egiten ditugun prestakuntza modulu eta ekitaldi ezberdinen arabera. Prestakuntza hauetan emakume ezberdinek ematen dute izena: batzuk urte osoko prestaketa eta modulu tarako izena ematen dute eta beste batzuk, berriz, hiru hilabetetako prestaketarako.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Zentroaren helburuak dira besteak beste, emakumeen partaidetza soziala formazio ezberdinen bidez sustatzea, emakumeen gaitasunak garatzea eta kultura handiagotzea. Horretaz gain zentroak emakumeentzat topaleku izatea du helburu.

- Zein maiztasunarekin biltzen zarete?

Astero-astero biltzen gara zentroan. Eta astelehen eta asteazkenetan arratsaldeko 15:00etatik 17:30era izaten ditugu formazioak.

- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Urtean ekitaldi ugari egiten ditugu: memoria lantzeko tailerrak, literatura tailerrak, irteera kulturalak, zine zikloak (emakumea eta zinea...), egungo gaiak lantzeko tailerrak...

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Edozer gauzarako eta informazio gehiago nahi izanez gero, zentroan egunero egoten gara, astelehenetik ostiralera arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara eta bestela posta elektronikoko bidez: m_asun_ramos@yahoo.es helbidean. Baldintza bakarra emakumea izatea da eta jendea izena ematera animatzen dut.

Olatz Gil

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

san antonio

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiakurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna